



**Udal aldizkaria**

**2017ko otsaila. 5. alea**

Lege-gordailua: DL NA 2406-2015

## **AURKIBIDEA**

**FESTEN INKESTAK 2**

**OBRAK 3**

**AURREKONTUAK 4**

**LAN KONTRATAZIOA 4**

**ETXEBIZITZA ONDORIOAK 5**


**MOTX-MOTXEAN 8**

**HURRENGO HITZORDUAK 8**

“Zubimuxun sukaldea jarriko da” / 3

# **ETXEBIZITZA INKESTEN EMAITZAK**

Etxebizitza Batzordearen balorazioa eta Udalaren aurrera begirako konpromisoak ere zehazten dira / **5-7**



Goizuetako Udala



## INKESTEN EMAITZAK

Denbora pasa bada ere, bildu ditugu jaien ondorengo inkesten emaitzak. Hemen erantzunak:

- Etxe guztietara banatu zen inkesta 41 pertsonen erantzun zuten. Adin tarte ezberdinetakoek erantzun bazuten ere, orokorrean, jende heldua nagusitu da.
- 2016ko jaien balorazio orokorra 6,5 puntukoa izan da batezbeste.
- “Zer aldatuko zenuke?” galderari erantzuterakoan puntu hauek azpimarratu ditzakegu:

<b>Aipamen dezente</b>	- Zezenen falta.	- Egunak gutxitzea.
<b>Aipamenen bat</b>	- Zezenen inguruan:	Herri eztabaida; hondarrik gabe; zezenak ez baina goizeko hutsunea betetzea.
	- Kontzertuen inguruan:	Hobeak eta gehiago.
	- Haurren inguruan:	Ekintza gehiago eta disko-festa.
	- Pilotaren inguruan:	Partidu gehiago; profesionalik ez; profesionalak ekarri edo ez aztertu.
	- Dultzaineroak kendu.	- Txaranga garesti.      - Berrikuntzak mantendu.

- Ekintza bakoitzak jaso duen batezbesteko puntuazioa hauxe da:

<b>Berbenak</b>	6,9	<b>Ekintza partehartzaileak</b>	8	<b>Kale animazioa</b>	8,1
<b>Txaranga</b>	8,3	<b>Bertsolariak</b>	6,5	<b>Puzgarriak</b>	7,25
<b>Zezenak</b>	8,2	<b>Erraldoiak</b>	7,9	<b>Dultzaineroak</b>	6,7
<b>Pilota</b>	7	<b>Mariatxiak</b>	8,2	<b>Herri Kirolak</b>	6,6
<b>Kontzertuak</b>	7,1	<b>Jotak</b>	6,4	<b>Besterik (dantzariak)</b>	9,6

- Garbitasunaren aurrekontuari begira, emaitza hauek izan dira: %62arentzat nahikoa da; %35ak handituko luke eta %3ak txikituko luke.

- Jaietako udal aurrekontuari dagokionez: %67arentzat nahikoa da; %22ak handituko luke eta %11ak txikituko luke.

- “Baduzu besterik esateko?” galderari erantzuterakoan puntu hauek azpimarratu ditzakegu:

<b>Aipamen dezente</b>	- Zezenak egotea.	- Berbenak: astezko berbenak ikastolan egitea eta goizago hastea.
<b>Aipamenen bat</b>	- Ekonomikoki: ekitaldi merkeagoak bilatzea.	- Ekitaldi parte-hartzaileak: urtero bakailao lehiaketa egin beharrean aldatzen joatea eta jendearen partehartze gehiago bilatzea.
	- Publizitate gehiago egitea.	- Pilota partidak: ordutegia aldatzea eta bakailao lehiaketaren egunean jartzea.
	- Kanpinean datozenei neurriren bat jartzea.	- Txaranga berritzeko beharra.
	- Ekintzak euskaraz egitea.	


## Tifanixoko teilatua berritu da

Obra hau egiteko udalak aurreikusia zuen data luzatu bada ere, dagoeneko prest dago eraikinaren zutabea. Ia bi hilabete iraun duen obra hau Zabala eta Goikoetxea eraikuntza enpresak egin du eta azkenean 72.185,99€ kostatu da.

Aurrera begirako asmoa, orain arte bertan lekua izan duten herriko eragileez gain, beste eragile eta zerbitzu batzuentzat ere lekua egokitzea da;

hala nola, goizukoop kooperatiba eta Basauntz ehiza elkarteak. Eskulanak egiteko ere lokalen bat gordeko du udalak.

Teilatuaren gastuari udalak aurre egin badio ere, barruko gastuaren ardura Tifanixon txoko bat izango duten eragile guztien artean ordainduko da. Beraz, hemendik aurrerako lana horixe izango da. Eragileok bildu eta elkarlanari ekitea, bai dirua biltzeari begira, baita auzolanaren lanketa antolatzeari begira ere.




## Zubimuxun sukaldea jarriko da


Zubimuxu aterpetxeak zuen gabeziari aurre eginez eta egungo turista eta bisitarien dituzten beharrei erantzunez, sukaldeko zerbitzua gehituko dio udalak aterpeari. Lehen zituen hozkailua eta mikrouhin labeaz gain, indukziozko plaka eta labea ere izango ditu aurrerantzean gainerako ekipamendu guztia-ekin.

Daik Zerbitzuak S.L. enpresak egin du obra eta 12.100€-ko kostua izan du. Obra egiteko kanpana estraktorearen tubo barrutik teilaturaino pasatu behar izan da.

Behin lanak bukatuta daudelarik, Zubimuxu aterpea lizitzeko borondatea du udalak. Beraz hemendik aurrera aterpera deitzen dutenek ez dute sukaldetik ez duelako atzera egiteko arrazoirik izango.



Zubimuxu gaur egun.



Zubimuxu berrituta.

## 2017 UDAL AURREKONTUAK ONARTU BERRI

Urtarrileko ohiko batzarrean onartu zituen Udalak 2017ko aurrekontuak. Aurreikuspenen arabera 887.600 euroko sarrerak eta 817.858 euroko gastuak izango ditu udalak aurtan.

Aurrekontuetan jaso gabe geratu da Zabortegiaren klausura eta zaharberritzeko obra, ondoren aurrekontu-modifikazio bidez gehitu beharko dena gerakinarekin finantziatuta. Zabortegiaren klausura Nafarroako hondakin Planean jasotzen denaren haritik doa eta %80an Nafar Gobernuak dirulaguntzarekin egingo bada ere, 800.290€ kostako dela kontuan hartuta, Udalarentzat esfortzu ekonomiko handia da.

Urtarrilaren 30eko plenoan hasierako onarpena eman zitzaion. Behin Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzen denetik 15 euneko epean tartera daitezkeen alegazioak ebatzita behin betiko onarpena eman beharko dio berriz Udalbatzarrek.

Informazio gehiago larunbateko herri batzarrean.

### Kontuak

2016 urteko kontuen itxiera 2017ko lehen hiruhilabetekoan egiteko aurreikuspena du Udalak. Kontabilitatea funtsezko tresna da gastuaren kontrolean eta 2015eko kontuak isteko izandako zailtasunak gogoan hartuta, positiboki baloratzen du.

## FERNANDO GOIA, UDALEKO LANGILE BERRIA

2016ko maiatzean Joxe Ramon jubilatutik zenetik Udalak langile berri bat edukitzeko beharra baloratu ondoren, ordezko bat kontratatzea erabaki zuen.

Honela, joan den azaroaren 14an erregimen administratiboan kontratu bat egiteko eta lan-poltsa bat osatzeko azterketak egingo zituela iragarri zuen. Lan eskaintzaren nondik norakoak eta hautaprobaren xehetasunak azaltzeko oinarriak argitaratu ziren, hautaketa prozesuari hasiera emanez.

Goizueta herri euskalduna dela kontuan hartuta, Udaletxeko langileak euskara jakitea ezinbestekotzat jo genuen eta langileentzat meritua baino, hautaketan parte hartzeko baldintza izan da.

Hautaketa egiteko 3 frogak egin dira, lehenengo biak baztertzailak: azterketa teorikoa, praktikoa eta elkarrizketa pertsonala. Frogak diseinatzeko pertsona eta enpresa adituen kolaborazioa eta aholkularitza izan ditu Udalak. Bestalde, meritua ere baloratu dira.

30 pertsona aurkeztu ziren eta azken fasera iritsitako 4 hautagaiekin zerrenda bat osatu da. Lehendabiziko postuan zegoenak lan-postuari uko egitearen ondorioz, Fernando Goia izan da kontratatua.

Beste hautagaiekin osatutako lan poltsatik egingo ditu Udalak etorkizunean kontratazioak, oinarrietan jasotakoaren arabera.


## INKESTEN EMAITZAK

Urrian hasi eta urtarrila bitartean, Etxebizitza Batzordeko kideak etxez-etxe galdetegi banatu eta biltzen ibili dira. Inkesta honek Goizuetan etxebizitza eta lokalen zein behar eta eskaintza dagoen eta Goizueta bizileku bezala nola hobetu biltzen ditu, besteak beste. Inkestetan jaso ditugun emaitzak eskuartean ditugu:

1 DATU OROKORRAK		
Zenbat etxetan utzi da inkesta	309	% 90,12
Zenbaterantz dute	266	% 86

Etxe bakoitzeko	Batazbestea
Zenbat pertsona bizi	2,15
Zenbat pertsona erroldatuak	2,21
16-30 urteko gazteak	0,40

Etxearen jabetza	
Etxea berea du	238
Etxea alokatua du	16



Kontutan hartu emaitzak inkesta erantzun dutenenak direla, eta beraz, erantzun ez dutenen datuak ez daudela. Gainera, inkesta guztietan galdera guztiak ez dituzte erantzun. Hortaz, galdera bakoitzeko erantzunen emaitzak izango lirateke hauek.

2 ETXEEN ESKARIA HERRIAN	
<b>Goizuetan alokatu/erosiko lukete</b>	<b>47</b>
BOE	10
BOET	2
Alokairu soziala	11
Konpartitua	2
Librea	15

Noizko	
5 urte baino lehen	19
5 urte baino beranduago	6

Etxeen eskaria herritik kanpo	
Etxea erosi/alokatuko lukete	44
Bizitzeko	24

Kanpora bizitzera joateko arrazoen artean, ondorengoak nagusitu dira: lana, errepidea, herrian etxea eskuratzeko aukerarik ez egotea edota bikotea.

3 ETXEEN ESKAINTZA HERRIAN	
<b>Goizuetan etxea eskaintzeko</b>	<b>28</b>
Egun alokairuan	10
Alokatzeko prest	10
Saltzeko prest	14
Udalaren datu basean sartzeko prest	18

4 LOKAL BEHARRA	
<b>Goizuetan lokala beharko lukete</b>	<b>13</b>
Alokatu	7
Erosi	3

LOKAL ESKAINTZA	
<b>Lokala alokatu/salduko lukete</b>	<b>8</b>
Udalaren datu basean sartzeko prest	5



5

## GOIZUETAN BIZI DIRENAK

<b>Herrian bizi dira</b>	<b>233</b>
Gustora bizi dira	211
Etorkizunean Goizuetan biziko lirateke	186

Goizuetan bizitzeko arrazoen artean, ondorengoak nagusitzen dira: bertakoa izatea, lasaitasuna, nahia eta gustoko herria izatea, lana, etxebizitza hemen izatea eta gustora bizitzea.

## KANPOAN BIZI DIRENAK

<b>Kanpoan bizi dira</b>	<b>38</b>
Lanarengatik	30
Ikasketengatik	3
Errepidearengatik	4
Etorkizunean Goizuetan biziko lirateke	15

“Nola hobetu Goizueta bizileku bezala?” galderak zer esan handia eman du eta inkesta erantzun dutenek, beraien ekarpenak egiteko aprobetxatu dute aukera. Hauek dira alor bakoitzaren inguruan egindako ekarpen aipagarrienak.

## NOLA HOBETU GOIZUETA BIZILEKU BEZALA

Lana	66
Errepidea	32
Etxebizitza	40
Zerbitzuak	52

Lanari egindako ekarpenak
Gazteentzat erraztasunak
Enpresa/lantegi bat
Komertzioarekin
Kooperatiba bat sortu
Negozio txikiak indartu
Lanbiderekin hitzarmena (osasun alorrean bezala)
1. sektorea
Lokalak sortu eta egokitu
Zaharren zentroan

Errepideari egindako ekarpenak
Garraio publiko gehiago
Kobertura
Kurbak kendu

Etxebizitzari egindako ekarpenak
Prezioak jaitsi
Gaztetatik etxea eskuratzeko aukera/laguntza eman
Etxe zaharrak eta hutsak moldatu
BOE berriak egin
Udal eraikinak moldatu
2.etxea hutsa dutenei zerga igo
BOE etxeei jarraipena
Auzolanean

Zerbitzuei egindako ekarpenak
Komertzioak hobetu eta gehitu (batez ere arraindegia)
Zaharren egoitza
Dauden komertzioen eskaintza hobetu (akomodatu gabe)
Bertakoa eta bertan kontsumitzearen aldeko kanpaina
Bide gorria hobetu eta luzatu
Beste ekarpenak
Kalea piztu
Herritarrak inplikatu

## ETA ORAIN ZER?

Ia lau hilabeteren ondoren, Etxebizitza Batzordeak bukatu du bere lana. Jasotako emaitzak udalari igorri dizkio eta hemendik aurrera, udalaren esku geratuko dira inkestak, hauen emaitzak eta batzordeak egindako lanari jarraipena ematea. Egindako lanarengatik, eskerrik beroenak batzordean parte hartu duten herritarrei.

Eta orain, ze bide jarraituko du udalak inkestetan ateratako emaitzei segida emateko?

### Alde batetik:

Nafarroako Gobernua eta Nasuvinsarekin bildu nahi du.

Goizuetaren biztanle beherakada aipatu, egoera, etxebizitza inkesten emaitzak...

- Zer egin daiteke? Zertan lagundu dezake?

Ondorengo puntuei buruz informatu eta herrian eragin:

- Etxe zaharrak berritzeko dirulaguntzak.

- Etxea alokairuan jartzen dutenei ziurtasunak eman (egoera onean itzuliko diela, ordainketak garaiz egitea...)

- Gazteei etxea alokatzeko dirulaguntzak.

- BOE jarraipena (baldintzak, betebeharrak, eskubideak...).

### Beste aldetik:

Alokatzeko/saltzeko prest dauden etxe eta lokal jabeekin bilera egin. Etxeei eta lokalei buruzko informazioa bildu eta datuak publiko egin.

### AURRERA BEGIRA, UDALAK AURREIKUSTEN DITUEN PAUSOAK:

- Goizuetan lana sortzeko laguntza eskaini: jarduerak, hitzaldiak eta formakuntzak antolatu autonomo, kooperatiban edota beste mota bateko lan gisa aritzen direnekin (esperientziak konpartitu, aholkuak eman, laguntzak lortu...).

- “Nola hobetu Goizueta?” galderan atera diren ideiak behar denarengana eta dagoen alorrera bideratu eta lantzeko aukerak aztertu.

### ETXEBIZITZA BATZORDEAK ONDORIO HAUEK ATERA DITU EGINDAKO LANETIK:

- Lanak asko eragiten du gure bizilekuan.

- BOE promozio batetik bestera hainbeste urte igarota, belaunaldiak galtzen dira.

- Etorkizunean herrian bizitzea gustatuko litzaiekeela askok erantzun badute ere, zaila ikusten dute.

- Batzuk nahiko ezkor daude (Goizuetak ez du etorkizunik...) eta seme-alabei hori transmititzen die.

- Herrian lanik ez dago baina gauza asko falta dira. Zergatik ez aukera aprobetxatu eta lana sortu? Mentalitate aldaketa eman da gizartean. Garai batean autonomo gehiago zegoen herrian eta egun, ez dugu arriskatu nahi, eroso bizi gara, besteak egiteko zain gaude...

- BOE-ko etxe batzuk hutsak dauden bitartean, beharra duten asko etxerik gabe daude eta kanpora doaz bizitzera hemen eskaintzarik ez dutelako.

# MOTX-MOTXEAN

## WEBGUNEA BERRITU DA

Egun, gero eta gehiago ibiltzen gara interneten tableta eta mugikorretik. Behar horiei erantzunez, [www.goizuetta.eus](http://www.goizuetta.eus) ataria gailu horietara egokitu da eta herritar nahiz turistentzat eskuragarriago dago informazioa. Beste berrikuntzetako bat “inkestak” atala da. Herritarrei parte hartzeko eta iritzia emateko leku berri bat eskaini nahi zaie. Hobekuntza hau 1.984,32€ kostatzen da.

## UDALBILTZA

Erakunde publiko eta nazional honek, Euskal Herria kohesioan sakontzen du. Egungo egoerak, ordea, Udalbiltza errealitatera egokitzea eskatzen du. Horretarako, “Udalbiltzan Bagabiltza” gogoeta prozesua egingo da, egungo egoera politikoari egokitzeko antolamendua eta lan ildoak zehaztuz udal hautetsi eta herritarrekin.

## GURE ESKU DAGO


Mendialdean ere jaio da proiektu berria: “Hemen gaudel!”. Larraun-Lekunberri, Araitz-Betelu, Leitza, Areso, Goizuetta eta Aranok osatzen dute eta ekainean herri galdeketa egiteko sinadura bilketa martxan dute. Bilketari bukaera emateko, otsailaren 11rako festa antolatu da Goizuetan. Arratsaldean hainbat ekintza eta afaria.

## IHAUTERIAK

Aurtengoan ere hasi da lanean Mozorroen Taldea. Iazko ihauterietan egin zen hausnarketaren ondoren eta iazkoek izan zuten erantzun positiboa eta gero, aurtengoan ere jendea mozorrotu eta kaleak betetzera ateratzea espero dugu otsailaren 26tik 28ra. Baita martxoaren 4a kontuen egunean ere. Animatu eta bizitu gurekin!

## UEMA-REN “TONTORREAN” MAILAN DA UDALA

Euskara hutsean aritzeko egindako lanaren ostean maila gorenean dira Leitza eta Goizuetako udalak. Honekin, oro har, salbuespenak salbuespen, euskaraz funtzionatzen dela ziurtatzen da. Bereziki udalaren barne funtzionamenduko ekipoetako programak euskaraz erabiltzeko erabakiak eraman du Goizuetako Udala tontorrera.



## HURRENGO HITZORDUAK

**2017-02-11** 11:00. HERRI BATZARRA. Eskolako jantokia.

**2017-02-11** 17:00tatik aurrera Gure Esku Dago eguna.

**2017-02-26/28** IHAUTERIAK.

**2017-03-04** KONTUN EGUNA.

**2017-03-08** EMAKUME LANGILEON NAZIOARTEKO EGUNA.